

2019. URTEKO ANDRA MARI ETA SANTA EUFEMIA JAIETAKO LIBURUKO ARTIKULUAK IDAZTEKO ETA ARGITARATZEKO DEIALDI PUBLIKOA

Bermeoko Udalaren Kultura eta Hezkuntza Sailak 2019ko Andra Mari eta Santa Eufemiako jai liburuan argitaratuko diran artikulua edo lanak idazteko eta argitaratzeko deialdi publikoa egiten dau. Bermeotar guztiei zuzendutako ekimena da, eta herri mailako sorkuntza, barrikuntza, tradizioa, kultura eta jakituria bultzatzea eta zabaltzea da helburua, sortzaileei euren lanak ezagutarazoteko aukerea emoteaz gain.

OINARRIAK

Gaiak

- Bermeoren inguruko kondairak, istorioak (benetakoak, zein fikziozkoak), gertaerak, kontakizunak, ipuinak, efemerideak...
- Bermeoko kultura, hezkuntza edo gainontzeko arloetako sortzaileen lanak, Bermeogaz edo bermeotarrakaz zerikusia daukienak, beti be eretxi artikulua ez badira.
- Honako gaiak buruz idatzi daitezke besteak beste: antropologia, folklorea, hizkuntza, historia, ahozko zein idatzizko literatura, kultura, artea, musika...

Nork parte hartu

- 16 urtetik gorako herritarrei zuzenduta dago.
- Lanak bermeotarrek zein Bermeon erroldatutako herritarrek aurkeztu ahal izango dabez.

Lanen luzera

- Lan bakotzak gehienez 9.000 karaktere izango dauz, hutsuneak barru. Gitxi gorabehera 4 orrialde izango dira.

Lanak aurkezteko modua, lekua eta epea

- Partaide bakotzak lan bat edo gehienez bi aurkeztu ahal izango dauz.
- Lanek izenburua eukiko dabe eta testuagaz batera, egilearen datuak azalduko dira: izen-abizenak, telefonoa eta e-posta. Jai liburuan izenburua eta egilea agertuko dira, beste datuak, udalak izango dauz.
- Lanak aurkezteko modua: paperean eta euskarri informatikoan (word formatua).
- Lanagaz lotuta, ilustraziorik edo argazkirik aurkeztekotan jpg formatuan aurkeztuko dira.

Lanak aurkezteko lekuak udalaren Kultura eta Hezkuntza Saila (Gizarte eta Kultura Etxea – Irakaskintza 14-16 eta Berhaz bulegoa (Ertzila 6-8) izango dira. E-maillez: kultura@bermeo.eus

- Lanak aurkezteko epea 2019ko uztailaren 10era arte izango da.

Jai egitarauan argitaratuko dan lan kopurua eta hizkuntzea

- Jai liburuan aurkeztuko diran lanei eskainiko jaken orri kopurua gehienez 32koa izango da.
- Gehienez ezarritako orri kopuru hori baino lan gehiago aurkezten badira, lan bi aurkeztu dauzan egileari lan bakarra argitaratuko jako.
- Jai egitarauaren barruan argitaratuko diran lanak nagusiki euskeraz argitaratuko dira, eta gaztelaniaz argitaratuko diran lanen orri kopurua gehienez be, %20koa izango da.
- Jatorriz euskeraz idatzitako lanak lehenetsiko dira; jatorriz gaztelaniaz edo beste hizkuntzaren batean idatzitako lanen kasuan, epaimahaiak lan horreek itzultzea erabagi leike, egilearen baimenagaz.

Argitaratzeko erispideak

- Lan originalak eta argitaratu bakoak lehenetsiko dira.
- Lana aurkeztu ondoren, egileak ezin izango deutso lana argitaratzeari uko egin.
- Argitaratuko diran lanak akats ortografiko, tipografiko edo gramatikalki euki ezkeru, udalaren Euskera Sailak egingo dau zuzenketa lana.
- Ez da argitaratuko zentzu sexistarik, indarkeriarenik, arrazakeriarenik edo ezelako sentzibilidaderik urratu daitekeen lanik, ezta epaimahaiak ez egokitzen jotzen dauen ezelako lanik be.
- Oinarri honeetan azaltzen diran baldintzak beteten dabean lanak argitaratuko dira; baldintzaren bat beteten ez dauen lanik ez da argitaratuko. Lanak argitaratu ahal izateko, epaimahaiak oinarri honeetan ezarritako baldintzak beteten dirala bermatuko dau.
- Baldintzak bete arren, leku faltagaitik aurkezten diran lan guztiak ezin badira argitaratu 2019. urteko jai egitarauan, epaimahaiak erabagiko dau zeintzuk lan argitaratu, honako erispideen arabera: originaltasuna, barritasuna eta irakurleeentzako interesa.

Epaimahaia

- Epamahaikideak honako honeek izango dira: udaleko arduradun politiko bi eta Euskera Saileko eta Kultura eta Hezkuntza Saileko teknikari bana.

Datuen erabilera

- Egileek udalaren esku jarriko dabean datuak deialdi honeguz zerikusia daukan kudeaketarako baino ez dira erabiliko.

Oharrak

- Lanak aurkezteak deialdiaren oinarriak onartzea dakar.
- Egileak bere lana edo lanak aurkezteagaz batera, baimena emongo dau bere lana edo lanak 2019ko Andra Mari eta Santa Eufemiako jai liburuan argitaratzeko egiten daben kolaborazioaren truke.
- Egileek ez dabe jasoko ezelako ordainsaririk euren lanak jai egitarauan argitaratzeko egiten daben kolaborazioaren truke.
- Egileek, lanaren egiletasuna bermatu beharko dabe eta, Bermeoko Udalak, ez dau inolako erantzukizunik eukiko, egiletasun hori bermatzen ez bada, eta egiletasunetik eratorritako arazoak sortzen badira. Hori horrela, egiletasunarengandik eratorritako arazoaren ondorioz, Bermeoko Udalak kalteak jasango baleuz, kalte horreek lanaren ustezko egileei jasanarazoteko aukerea izango dau, egokiak diran bide administratibo eta judizialen bidez.
- Lanaren jaubetza intelektuala eta eskubide ekonomikoak, udalaren esku geratuko dira, egileek mantenduko dabezan eskubide moralen kalte barik, hau da, Jaubetza Intelektualaren legediak, besterendu ezinezko eskubide lez aurreikusten dauzan eskubideen kalte barik, adibidez, egileen nortasuna une oro eta era argian ikusgai eukitea eta, lanari, tratamentu duina emotea.